



## Leitzako bost komertziotan lapurtu zuten herenegun gauean

**INDARREZ** ▶ Ateak indarrez ireki eta gutxi-asko eraman dute sartu diren leku guztietatik

**LEKUA** ▶ Bi tabernatan eta jatetxe, belardenda eta okindegi banatan izan dira lapurretak ▶ 7



### Irakurzaletasuna areagotzeko gaztetxoaren artean

**BERROBI** ▶ Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna gogoratu zuten herenegun Berrobiko liburutegian, irakurketarako zaletasuna areagotzeko gaztetxoaren artean. Gaztetxoak eta gurasoak elkartu ziren eta txikiak Hans Christian Andersen-en *Berunezko soldadutxo*a irakurri zuten eta gurasoek *Liburuak*

*nire begi majikoak* dira landu zuten. Asteazkenean *Berunezko soldadutxo*a ipuinaren protagonistari buruzko marrazkiak egin zituzten. Jardunaldiaren amaieran, ongi merezitako oparia jaso zuten irakurle txikiak. Argazkian, haur bat irakurtzen herenegun Berrobiko liburutegian. IÑIGO TERRADILLOS ▶ 6

**TOLOSA** ▶

**TAO ordu erdiz doan emango dute dende**

Igarondo Elkarteak jarri du martxan promozioa ▶ 3

**TOLOSALDEA** ▶

**HITZA argazki lehiaketako azkenak**

Bihar jakinaraziko dira finalistak ▶ 4-5

**TOLOSALDEA** ▶

**Alderdiek diotena AHTri buruz** ▶ 2

astelehenean **HITZA**n  
*EAE-ko hauteskundeak*  
eskualdeko emaitzak herriz herri





## AHT ▶

## ERREDAKZIOA

Tolosaldean eragin zuzena izango duen Abiadura Handiko Trenaren gaia planteatu diegu alderdiko ordezkariak, biharko hauteskundearen aurrean. Hona hemen beraien erantzunak.

**ANTTON KARRERA**  
IU-EB

### «U itxurako proiektu alternatiboa daukagu»

«Trenaren alde gaude, garraio bezala ulertuta. Gaurko egunean dauden garraio arazoekin, bai pertsonena bai merkantziarena, egoera egonezina da. Beraz tren indartu egin behar da, baina ez egin nahi duten Y proiektuarekin. Guk U proiektu alternatiboa aurkeztu genuen, herri hau askoz hobeto antolatzen duena. Hau da, abiadura txikiagoko tren, hiri handietan geltokiak egin eta ez hiriburu batetik bestera jendea eramateko erabiliko dena bakarrik —horrek herriak baztertzeko baititu—, eta batez ere merkantzien garraioa egin behar duena. Gobernua osatzeko garaian esan genuen Y proiektua ezin genuela onartu. Eta beraz erabaki genuen bakoitzak bere proiektua defendatzea. Talde ekologistekin ezberdintzen gara, gehienek trenna ez egiteko esaten baitute. Trenari ezin da ezetz esan, baina nolako tren eta nola egin ikusi behar da».

**PATXI ZABALETA**  
ARALAR

### «Konstruktoreei bakarrik komeni zaie»

«Euskal Y-ari ez esaten diogu. Tren soziala defendatzen dugu: bidaiariak eta merkantziak garraiatzeko tren moderno aldarrikatzen dugu, bai, baina egungo bideak hobetuz lortu daitekeena. Gasteiz-Bilbo da egitekoa dagoena. Iruñea-Gasteiz egin dago. Funtzik gabekoa da, egin nahi dutena. Konstruktoreei komeni zaien alternatiba besterik ez da. Atzerakoa, gizarteari eta ekonomiarik ere kalte egiten diona, erabat gure botoekin baldintzatuko bada, Y hori beharredan; tren soziala egin beharko da; honekin ingurugiroaren kontra doan eraikuntzaren aurka gaude».

**ANGEL YAÑEZ**  
PP

### «Espainiarekin lotura handia litzateke»

«Argi dago proiektu hau onuragarria dela Euskal Autono-

# Abiadura Handiko Trenari buruzko alderdien iritzia

Alderdi batzuk ondo ikusten dute, beste batzuk aldaketa batzuk proposatzen dituzte eta aurka direnak ere badira

mia Erkidegoarentzat. Ekonomikoki, bai eta giza arloan ere aurrerapauso handia da eta aurrera eman behar dela deritort. Honen aurka egiten dutenek ez dute euskal garapenean pentsatzen, baizik eta alderdikeria egitean. Espainiarekin lotura garrantzitsua suposatuko luke abiadura handiko trenak eta denborarekin, abantailak baino ez ditu ekarriko. Denei zuzenduriko garraioa izango da. Ingurumena zaindu behar da, noski, gutxieneko kalte txikiak eragingo ditu, baina azpiegitura gehienek bezala».

**OSCAR RENEDO**  
PSE-EE

### «Onurak besterik ez ditu ekarriko»

«Garapena eta aurrerapena da. Bere egunean kritika handiak egin zitzaizkion Iruñerako autobidari, eta egun guztiok erabiltzen dugu, eta guztiok onartzen dugu primerakoa dela Iruñera 40 minututan iritsi ahal izatea. AHTk Euskadirentzat hobekuntza izugarria suposatzen du. Egun Espainiak duen trenbide-linearik zaharrena hemen dugu; pentsa, 1962an martxan hasi ziren talgoekin jarraitzen dugu oraindik ere. Garraibidearen alorrean ere, aldaketa beharrezkoa da. Euskadi pauso garrantzitsua da Europara, eta AHT jende askok eta askok erabiliko luke. Horrela, onurak besterik ez dizkio ekarriko lurraldeari: lana, industria, aberastasuna... Alderdi progresista gara, eta horregatik ari gara proiektuaren alde egiten».

**ONINTZA LASA**  
EA

### «Iruñera luzatzea defendatzen dugu»

«Azpiegiturak edukitzea ezinbestekoa da. Ingurumenari egiten zaion inpaktoa ere oso kontuan izan behar da. Horren harira, tren sistemak behar dira pertsona eta merkantzien-tzat. Errepideko garraioak era-



AHTren aurkako mendi ibilaldi bat eskualdean. HITZA

gin handia egiten du kutsadurara. Gaur egun kutsadura handia sortzen du. Bestalde Europako sistemaren barruan egon behar dugu, konektatuta. Komeni da trenna ez galtzea eta barne egiturak sendotzea. Horregatik AHTren trazatua defendatzen dugu, baina Iruñera luzatuz, Mediterraneoruntz ere lotura izateko».

**INAZIO AGIRRE**  
BATASUNA

### «Eztabaida soziala behar da gai honetan»

«AHTren eztabaidak ez du konpontzen garraioaren arazoa. Ez du integratasun baten ikuspuntutik arazoa aztertzen eta ez ditu herritarren arazoak konpontzen. Gure irtenbidea proiektu publiko sozial tren moderno baten bidez doa herritarren eta eskualdeen lotura bermatzeko. Azken finean, hiriburuak bakarrik lotzeak Euskal Herriatik hartzen ez diren Europako beste helburu batzuk erantzuten dira. Ingurumenaren aldetik inoiz izan den txikizio handiena gertatuko litzateke. Obra hain garestia izanik programa sozialetarako eta behar sozialetarako hipotekak gundeke urte askotarako. Beraz, AHTren aurrean, berriz aztertu behar dela, eztabaida soziala behar dela, integralt-

sun ikuspuntu batetik aztertu eta gero erabakia hartu behar dela uste dugu, eta ez egin den AHTren inposaketa».

**BAKARTXO TEJERIA**  
EAJ

### «Europarekin lotuko gaitu tren horrek»

«AHT proiektuaren alde gaude gu. Hala ere, proiektu horren definiziorik egokiena ez litzateke Abiadura Handiko Trenna izango, pertsonak eta merkantzia uztartuko dituelako. Hor-taz, abiadurak ez dira handiak izango. Tren horrek Europarekin lotuko gaituela iruditzen zaigu, eta gaur egun errepideak oso daude beteta. Nolabaiteko soluzioa eman behar dugu horri, eta ikusten dugu hori dela egokiena. Baina betiere kontuan izanik alde batetik merkantziak daudela eta baita pertsonen arteko uztarketa izango dela. Eta gero, iruditzen zaigu egin behar dela ahal den kalte gutxiena sortuz, eta horretarako inbertitu behar den denbora, diru eta teknika guztiak erabiliko dira. Gizartea aurrera doa, eta behar gehiago sortzen ari gara; behar horiei irtenbidea eman behar zaiela uste dugu».

## EHNA ▶

## EHNArekin bozkatzeko deia egin dute

Bai Euskal Herriari ekime-nak bihar Euskal Herriko Nazio-tasun Aitormentarekin (EHNA) bozkatzeko animatu ditu EAeko biztanleak. Gainera, alderdietako zuzendaritzei ere gomendioa zuzendu die, beren nortasuna dokumentu horrekin egiazta-tzen duten hautesleak erres-peta ditzaten. Batez ere alderdi abertzaleetako buru-zagiei luzatu die «errespetu-rako» deia eta, zehazki, azkeneko hauteskundeetan «inposaketa espainolaren ordezkariak izan zirenei, euskal herritarrei dokumen-tu espainolak eskatu zizkie-telako». Gainera, «Espainia-ko nortasun agiriarekin boz-katzera behartzen duen edozein alderdiko kide sala-tzeko» konpromisoa ere har-tu du. Horretarako eskuo-riak banatuko ditu bihar hautes eskoletan eta 615 005 835 telefono zenbakia jarri du.

## KOMUNIKABIDEAK ▶

## Txolarre Irratiak saio berezia egingo du bihar

Txolarre Irratiak EAE-ko hauteskundeetako buruzko saio berezia egingo du bihar gauean. Behin hauteskunde mahaia itxi ondoren hasiko da saioa, 20:00etan, eta gaur erdira arte luzatuko da. Tolosaldeko emaitzez gain, horien analisiak eta balorazioak egingo dituzte bertan alderdietako ordezkariak. Hauteskunde kanpainen zehar alderdi bakoitzaren eskualdeko ordezkariarekin elkarrizketan egin ditu Txolarre Irratiak.

## KONTAKETA ▶

## Bozken kontaketa egingo dute Intxurre tabernan

Aurten Herri Biltokian egin behar den Intxurre herriko tabernan ekingo dio Batasunak bihar iluntzean EAeko hauteskundeetako bozken kontaketa. Eskualdeko emaitzak ezagutzen eta jakinarazten egongo dira arratsalde eta iluntze osoan eta bertara gerturatzeko den orok mokadua jateko aukera izango duela jakinarazi dute Batasunatik.

ZIKLOTURISMOA ▶

**Irteera antolatu du biharko Marraskilok**

Igandero moduan, bihar ere irteera antolatu dute Marraskilok zikloturista taldekoek. Tolosa-Hernani-Arano-Urnieta-Aduna-Tolosa ibilbidea osatuko dute, 90 kilometrokoa guztira. Joan nahi duenak taldearen egoitzaren aurrera (Berazubi auzoa) agertu behar du bihar, 09:00etan.

MENDIA ▶

**Omenaldia Berriori eta Ortizi Uzturren, bihar**

1969an Bulnesko Naranjo eskalatzen hil ziren Ramon Ortizi eta Patxi Berriori omenaldia egingo die Oargi mendiko elkarrekin bihar, 11:00etan, meza izango dute Izaskunen. 13:00etan, buzoi berria inauguratuko dute Uzturren, eta ondoren bertan bazkalduko dute —euria eginez gero Oargin izango da bazkaria—.

URTEURRENA ▶

**Gure Txokoa elkarrekin eguna, gaur**

Gure Txokoa elkarrekin bere eguna ospatuko du gaur, 75. urtemuga dela eta. 11:30ean meza izango dute bazkideek Jesusen Zerbitzarietan; elkarrekin abesbatzak parte hartuko du bertan. Ondoren, mokadutxo hartuko dute elkarrekin. Eta 20:30ean, azkenik, afaria egingo dute Fron-ton jatetxean.

ODOL-EMATEA ▶



Herritarrak odola ematen Tolosaldea LHIn. IMANOL GARCIA

**Odol emaleei deia astelehenerako**

Etzi, astelehena, odol bankua etorriko da Tolosara, Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarrekin antolatuta. Odola eman nahi duenak Kultur Etxera jo behar du, 18:30etik 20:30era.

HITZALDIA ▶

**Drogei eta prebentzioari buruz, Orixen**

Drogomenpekotasunaren prebentziorako programa berria aurkeztuko diete gurasoei Orixen institutuan. Asteazkenean, hilaren 20ean, egingo dute bilera, ikastetxe-ko liburutegian. Informazio saio hori Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. zikloko ikasleentzako gurasoei zuzenduta dagoela adierazi dute Orixeko ordezkariak. 18:30ean hasiko da hitzaldia.

MENDIA ▶

**Alpinoren Sarria-Orozko ibilaldian izen-ematea**

Alpino Uzturre mendi elkarrekin Sarria-Orozko ibilaldia antolatu du hilaren 24rako, igandea. Sei orduko mendi irteera da, eta Usategiata (1.188 metro), Odoriaga (1.242) eta Ubieta (1.115) mendiak igoko dituzte. Izen-ematea zabalik da dagoeneko elkarrekin (Gudari 5, 943 65 27 89). Bazkideek 10 euro ordaindu behar dute, eta gaitortzeak 12.

MERKATARITZA ▶

**Erosketaren truk, TAO ordu erdiz doan**

Igarondo Elkarrekin promozioa jarri du martxan, «bezeroak saritzeko»

LEIRE MONTES

Tolosara beren erosketak egitera etortzen diren bezeroak saririk merezi dutela uste du Igarondo elkarrekin, eta «esker ona adierazteko» kanpaina bat jarri du martxan: TAO ordu erdiz aparkatzea kostatzen dena ordainduko diete merkatariek bezeroari, erosketaren truke.

Asteburu honetatik aurrera eskualdeko herritarrek kanpainari buruzko informazio jasoko dute beren etxeetan. «Jendeak promozioa ezagutzera nahi dugu, hala probetxua ateratu diezaion», azaldu dute Igarondo Merkataritza Elkarrekin.

Sariturik izateko zer egin behar den? Lehenik eta behin, Igarondo elkarrekin kide diren establezimenduetan soilik izango du bezeroak promozio honetatik aukera. Salto-ki hauek identifikatzeko erraza izango da: Igarondo elkarrekin logotipoa eta kanpaina iragartzen duen kartela jarriko dute merkatariek, kanpotik ikusteko moduan.

Bestalde, 6 eurotik gorako erosketak egin behar du bezeroak. Hala denean, TAOren ordainketa makinak jasotako tiketaren azpiko aldea erakutsi behar dio merkataritari —txartelaren goiko aldea autoan ikusteko moduan utzita edukiko baitu—. Orduan, merkataria-riak jaso egingo du, eta TAO ordu erdiz aparkatzea kostatzen denaren beharpe- na egingo dio bezeroari, hau da, 0,30 zentimo.

TAOren tiketa erosketak egin- ten den eguneko behar du izan, eta merkatariek ez dute aurreko egunetako txartelirik onartuko.

«Promozio honekin, Tolosara erosketak egitera etortzen diren bezeroaren fideltasuna



Igarondo elkarrekin promozioa iragartzen duen kartela. HITZA

saritu nahi dugu, eta gure esker ona adierazi», azaldu dute Igarondokoek.

**Abuztuaren 31 arte**

Igarondo Merkataritza Elkarrekin abian jarri berri duen kanpaina honek abuztuaren 31 arte iraungo du. Orduan, balantzea egiteko astia hartuko dute. «Bukatzen denean, elkarrekin estatistikak egingo ditu. Hala, promozio hau zenbat lagunek erabili duten, elkarrekin kide bakoitzak bere bezeroei egin dien batz besteko behar- rapena eta beste hainbat eta hainbat datu jakiteko aukera izango dugu». Itxaropentsu daude elkarrekin, eta kanpaina «denon gustukoa» izatea espero dute.

**ARAMBURU**  
Salgai (Tolosa), Garaje itxia Plaza Zaharran.  
Salgai (Tolosa), Pisua igogailuarekin Larramendi kalean, 112 m<sup>2</sup>, Berritua.  
Salgai (Tolosa), Pisua handia Gorosabel 40ean. Garajea aukeran  
Salgai (Tolosa), Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m<sup>2</sup>.  
Alokatzeko (Amezketak), 3 logelako pisua, Altzari eta garajearekin.  
Alokatzeko (Tolosa), Lokal komertziala Erementari kalean.  
Alokatzeko (Tolosa), Garajea Pedro de Tolosa kalean eta Araba Etorbidean.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

**SALTZAILEA**  
behar da jornada erdira umeen arropa dendarako  
Euskara dakiena.  
Kurrikulum-a bidali argazkiarekin  
Gudari 8, 5.ezk • TOLOSA

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**  
Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61  
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34  
**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411  
**Irurra.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Lizartza.** Medikua: 68 20 77  
**Tolosa.**  
▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111  
▶ San Esteban: 00 68 00  
▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
▶ Amaroizko dispen.: 67 26 37  
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)  
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
▶ DYA: 67 25 36  
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
▶ Ertzaintza: 53 88 20  
**Villabona-Aiztondo.**  
Anbulatorioa: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89  
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40  
▶ Taxia: 67 04 20  
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

- ▶ Galtzaundi: 65 50 04  
▶ Aurrerik aldizkaria: 30 07 32  
▶ Tipi ttapa ald.: 948 631888  
▶ Txolarre irratia: 943 69 80 38  
▶ Karrare irratia: 948 61 09 14

EUSKALTEGIAK

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06  
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Gaur.** Olarreaga, A. Korreo, 2 (Tolosa). 943 67 01 28.  
Plaza. Elbarren 36 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

- Publizitatea.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_publici@tolosaldeko-hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.  
villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info  
**Anoeta.** 687 41 00 22  
anoeta@tolosaldeko-hitza.info  
**Ibarraldea.** 687 41 00 32.  
ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info  
**Leitzaldeko.** 687 41 01 18.  
leitzalde@tolosaldeko-hitza.info


iragarki laburrak ▶

**LANA**  
**Zerbitzaria.** Alegiako taberna batean zerbitzari bat behar dugu arratsaldetan. Deitu 649 51 34 87ra.

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

# Lehiaketako azken irudiak

HITZAK antolatu duen argazki lehiaketara bidalitako argazkiak publikatzen aritu da azkeneko orrian; orain hemen dituzuen hauek dira publikatu gabe zeudenak; bihar jakinaraziko dira zortzi finalistak



Leire Arreseigor (Amezketza), Garaio (Araba).

### ERREDAKZIOA

Argazki ugari iritsi dira Hirzako erredakziora, bakoitza bere istorioarekin. Izan da Aste Santua urrutiko igaro duena eta hango irudi bat bidali duena, New York, Patagonia eta Laponia, esaterako. Izan da besterik, ez diena urrun joan, baina argazkiak ateratzeari ez dioena uko egin eta horrela Donostiako eta Txindokio argazkiak bidali dituzte. Beste batzuk, ez dute oinarri zeharkatu, baina ez dira Euskal Herrian geratu ere. Mallorcan, Andorran edo Tarrifan ateratako argazkiak bidali dituzte.

Paisaiak izan dira nagusi Hirzako Argazki Lehiaketan. Eta nabarmentzekoak dira eguzkiak ilunabarrean sortutako

kolore gorri eta laranja islatu dituzten irudiak. Lamiok jasotzen dituzten formak irudimena ihesarazten duten ilunabar ederrak. Argazkiek argia harapatzeko die eta horrek ematen die bitxia.

Azteen istorioa duten argazkiak ere jaso dira. Saha rako errefuxiatuen kanpamendura joan denak bidaltzeko edo, umore onez, Andaluziako astoak izena jarri dituen argazkirena, non animalak hauek zaborontzietan bilatu behar izan duten jateko.

Orri hauetan erakusten dira orain arte publikatu ez diren argazkiak. Bihar epimahiak aukeratuako zortzi finalistak argitaratuko dira, ondoren, irakurleek bere gustuen arabera irabazleak aukeratu ditzaten.



Amaia Jauregi (Tolosa), Bendorm (Espainia).



Itigo Jimenez (Anoeta), Txindoki, Uzturretik ikusita.



Jon Ander Mitxelena (Villabona), Patagonia.



Josu Gonzalez (Tolosa), Donostia (Gipuzkoa).



Maider Romo (Amezketza), Lodosa (Nafarroa).



Juria Gorostiaga (Oñati), New York (AEB).



Mikel Karrera (Elduain), Ordino-Arcalis (Andorra).



Oier Aranzabal (Aldaba), Mallorca (Hertalde Katalanak).


IBARRA ▶ KULTURA

# 25. urteurreneko liburua aurkeztu du Xepia elkarteak


Aurkezpen ekitaldia oso jendetsua izan zen; liburua banatu zizkieten jendeari eta ondoren 'lunch'-a egin zuten



Aloña Usandizaga, Kussamo (Laponia).



Dani Lanzeta (Tolosa), Granada (Espainia).



Fernando Rojo (Tolosa), New York (AEB).



Inge Orrantia (Tolosa), Saharako errefuxiatuen kanpamendua.



Unai Lasa (Tolosa), Tarifa (Espainia).



Xabino Añijotus eta Xabos Agirrezabala egileak, Fermin Arregi lehendakaria, Chelo Romeo Ibarra eta Koldo ordezkariek. Aztean Ibarra koroa kantari. I. TERRADILLOS

### IRIGO TERRADILLOS

Herezegun egin zen Ibarra Benito Izagire kultur etxean Xepia elkartearen 25. urteurreneko liburua aurkeztuena. Jende ugari bildu zen ekitaldian, elkarteako bazkideak, beste elkarteetako ordezkariak eta une berezi honetan bertan egon nahi izan zuten herritarrek. Elkarteko ordezkari eta liburuaurren egileek hartu zuten hitza lehendabiziz. Eskerrak eman zizkieten aurkezpena gerturatu zuten guztiak, eta ondorengo luntzera gonbidatuta zeudela eta bertan liburua aile bat jaso ahaliko zutela adierazi zuten. Bazkideei eta beste elkarteetako ordezkari eskerrak emateaz gain, Udalari, Kutxari eta Eusko-Dei Kutxari ere liburua egiteko emandako laguntza eskerri zuten. Jende askok lagundu duela liburua egiteko orduan, baina bereziki Carlos Garcia eta Julen Colmeneroren laguntza aspimarratu nahi izan zuten.

Bestalde, 25 urteetan egin-dakoa liburua irudikatua uztea izan dela egileen helburua azaldu zuten. Horretarako lan zaila izan dela garaiko argazkiak eta dokumentuak lortzea eta etxe etxe arri dirala al-patu zuten. «Urtebete inguru egin gara eguneroko lanean», adierazi zuten Xabino Añijotus-ek. Egileek hitz egin ondoren,



Aurkezpenaren ondoren, Xepia elkartearen lunch-a hartzen. I. TERRADILLOS

liburua egiteko diruz lagundu duten izenen Ibarra elkarteak eta Kutxako ordezkariak hitz egin zuten. Behin aurkezpenak egin da, musika Ibarra koroak jarri zuten. Hiru abesti kantatu zituzten eta txalo zaparrada berria jaso zuten. Xepia elkartearen jarraitu zuten ekitaldiak, bertan prentzatu zuten Xepia. Giro ederra, lagunartekoa nabari zen elkartearen bilduren artean. Jatekoa eta edatekoa nahi adina zegoen eta la-

gunekin eta ezagunekin solasean aritzeko une aproposa izan zen. Festa politu hau ordu txikietan arte luzatu zen eskorren kantak eta bertsoak nagustu zirelarik. Balarozioa egiteko orduan, oso gustura azaldu dira liburuaurren egileak. Espero baino jende gehiago gerturatu zela eta oso pozik daudela aitortu dute. Bertan izan zuten herritarrek ere arratsalde atsegin igaro zuten eta liburua banarrikan joan ziren etxera.

BERROBI ▶ HAUR LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA

# Gaztetxoan irakurketa areagotzeko

## Herenegun ospatu zuten Berrobiko Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna

NOELIA LATABURU  
IÑIGO TERRADILLOS

Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna gogoratu zuten herenegun Berrobiko liburutegian. Ederki asko igaro zuten arratsaldea bertan bildu ziren gaztetxo zein gurasoek.

Izan ere, urtero egiten da egun hau Hans Christian Andersen idazlearen jaioteguna gogoratzu. Apirilaren 2an jaio zen Andersen eta aurten 200 urte bete dira egun horretatik.

Berrobin aste honetan antolatutako berezi honetako ekitaldiak. Astearean informazioa zabaldu zuten. Egunaren harira egin beharreko marrazkien berri eman zuten eta irakurri beharreko ipuinak zein izango ziren azaldu ziren gaztetxoei liburutegiko ardura-dunak.

Aurtengoan, Hans Christian Andersen ipuina *Beruneko soldadutxo* izan da. Beraz, margotu beharrekoa ipuinaren protagonista izango zen.

Ostegunean burutu zituzten ekintza guztiak. Lehendabizi *Beruneko soldadutxo* irakurri zuten txikienek. Ondoren, *Liburuak nire begi majikoak dira* izeneko Indiako ipuin bat irakurtzeari ekin zioten. Gurasoek landu zuten ipuin hau.

Urtero Liburuaren Nazioarteko Erakundeko kide den lurralde batek antolatzen du egun honetako kartela eta igorri beharreko mezua. Aurtengoan Indiari egokitu zaionez bertako ipuin bat landu da *Beruneko soldadutxo*arekin batera.

Asteazken zehar egindako marrazkiak erakusketako unea iritsi zen. Artista txiki bakoitzak marrazturiko soldadutxoak paratan zintzilikatu zuten denek

ikusgai izan zezaten. Ongi merezitako oparia ere jaso zuten irakurle txikiak jardunaldiaren amaieran.

Irakurzaletasuna bultzatzeko helburuarekin antolatzen dute Haur Literaturaren Nazioarteko Eguna. Datorren astean helduen txanda izango da, apirilaren 23an izango baita Liburuaren Eguna.



**Gaztetxoak eta gurasoak.** Txikienek *Beruneko soldadutxo* irakurri ondoren gurasoek *Liburuak nire begi majikoak dira* izeneko Indiako ipuin bat irakurri zuten. Gustura egon ziren liburutegian bildu zirenak; eserita, ipuintxoak eskuetan giro polita sortu zen bertan. IÑIGO TERRADILLOS



**Opariak.** Ongi merezitako oparia jaso zuten irakurle gazteek. IÑIGO TERRADILLOS



**Marrazkiak.** Soldadutxo asko izan ziren ikusgai. I.T.

## III. Literatur Lehiaketa

III. Literatur Lehiaketa haur eta sormena eta hizkuntzarekiko sustatzeko antolatu da. Partaideek aurkezten dituzten lanak Berrobiko udal liburutegian jasoko dira, maiatzaren 5a baino lehen.

Berrobin bizi diren edo ikasten duten 16 urte arteko haur eta gaztetxo guztiek esku hartu ahal izango dute eta zenbait oinarri bete beharko dituzte. Jatorrizko lanak euskaraz aur-

keztu behar dira eta banaka-koak, jatorrizkoak eta argitaragabeak izan behar dute; gaia aukera askekoa izango da.

Lehiaketa lau mailatan banatuko da: lehen mailan 6 eta 8 urte bitartekoentzat izango da; bigarren maila, berriz, 9 eta 11 urte bitartekoentzat; hirugarrena 12 eta 14 urtekoentzat eta azken maila 14 eta 16 urte artekoena izango da. Modalita-

tea, berriz, bakarra izango da denentzat, prosa, alegia. Lehen bi kategorikoez 3 orrialdeko hedadura izango dute gehienez eta azken bikoek seikoa izango dute. Lan hauen aurkezpena eskuz edo mekano-grafiatuta aurkeztu ahal izango dute.

Lanek ez dute egilearen sinadurarik, ezizenik edo bestelako ikurrarik izan behar. Lan bakoitzari kartazal itxia eran-

tsi behar zaio azalean lanaren izenburua eta maila ipiniz, eta barruan egilearen izena eta bi abizenak, jaiotze-data, telefonoa eta ikasmaila ahaztu gabe zehaztu beharko ditu.

Lau mailetan sariak liburuak izango dira, Berrobiko Kultur Astearen barruan banatuko direnak. Epaeleak Atzibar Zabala, Bittor Madina, Ramon Olasagasti eta Begoña Olamusu izango dira. ◀

### iragarki laburrak ▶

#### Laguntzaile administratiboak.

Leku libreak: Hernani, Usurbil, Beasain, Altzo, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informatu: 943 43 41 27.

**Haur Hezkuntza.** Gaztelerako 106 leku eta euskarako 52.

Doako informazioa. 943 43 41 27.

**Fisioterapeutak.** Laboratorioa, argizki teknikoak, erizain laguntzaileak. Hurrena sartzeko: osasunbidea, erakunde publikoak. Informatu: 943 43 41 27.

**Sukaldeko laguntzaileak,**

sukaldariak, tabernariak. Leku libreak: ikastetxeak, erresidentziak, Eusko Jaurlaritzak. Informatu: 943 43 41 27.

**Peoiak.** Igeltseroak, soldadoreak, mantenimendua. Leku libreak: Hernani, Arrasate, Arama, Errenteria,

Antzuola, Zerain, Mendaro, Villabona. Informatu: 943 43 41 27.

**Gidariak.** Hurrena sartzeko: udalleteak, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundia. Doako informazioa. Informatu: 943 43 41 27.

**Irakasleak.** 465 leku libre. Hurrengo

deialdiak. Informazioa doan.

Informatu: 943 43 41 27.

**Udaltzainak.** 25 leku libre udalletearako: Eibar, Mutriku, Ordizia, Beasain, Hernani, Irun, Arrasate. Informazioa doan. 943 43 41 27.

LEITZA ▶ GIZARTEA

# Bost lapurreta egin dituzte berdentzabart

Ateak indarrez ireki eta gutxi-asko, dirua eraman dute leku guztietatik

JAIONE ASTIBIA

Herenegundik atzorako gau-goizaldean, herrian bost lapurreta egin zituzten, eta seigarren batean saiakera ere bai. Atzo eguerdi parte osoan ez zen beste albisterik herrian.

HITZAK jakin eta egiaztatu ahal izan zuenez, herriko bost komertziotan egin zuten lapurreta: bi tabernatan, eta jatetxe, belardenda eta okindegi banetan. Seigarren denda batean sartzen ere saiatu ziren, baina dirudienez ez zuten lortu. Guztietatik dirua eraman zuten, kaxa erregistrazaillean zeuzkaten bezperako kanbioak, eta baita ustez jaso eta gordeta zeuzkaten bestelako diru-zorroak ere. Edozein moduz, zehaztugabeko kopuruak era-

man zituzten, batetik eta bestetik ere. Tabernen kasuan, gainera tabako guztia eta bertako makina txanponjaleetako dirua ere eraman zuten batetik behinik behin, osotara irekitzea lortuta; bestean, saiatu, saiatu izan behar zuten baina lortu ez.

Itxura guztien arabera, lapurreta egiteko lekuetara, batzutan ateak eta bestetan leihoak indarrez irekiz sartu ziren. Horren adierazle, atzo goizean ari ziren eraso jasan zuten saltoki horietan, sarrailak konponetzen, esate baterako.

Erasotuekin solasean arita, guztiek zioten, beren ustez diru bila sartu zirela euren saltokietara: «zentimozko txanponak bertan utzi dituzte gurean, euro osokoak eraman dituzte



Makina txanpon-jalea erabat lumatuta ikus zitekeen atzo. JAIONE ASTIBIA

kutxatik, eta atzo gelditu ziren bilete bakan batzuk», zioen batek. Beste batean, aldiz, «ez zegoen deus ere eta kartera eraman digute, paper guztiekin», argitu zuten. Guztiak ere, lanera joandakoan edo bidean zirela, ohartu omen ziren gertakiaz, ateak, leihoak irekita ikusi zituztenean.

Lapurreta hauek ikertzeko diligentsiak ireki omen zituzten atzo bertan, eta ez zen datu zehatzik ezagutzen.



Indarrezko zantzuak ateetan. J. A.

LEITZA ▶

## Barriolaren partiduarekin zalantzatan dabiltz oraino

Araudiaren arabera seinalamenduren aldaketa eskatua du Aspe pilota enpresak

J. ASTIBIA

Barriolak eta Gonzalezek jokatzea zuten Buruz-buruko Txapelketako partidua aste bete atzeratzeko Aspe egindako eskaera, EPELe ukatu ondoren, atzo goizean, berriz ere, beste eskaera bat egin zuen: seinalamendu aldaketa delakoa.

Nonbait, txapelketako arautegian bertan dago seinalamendu aldaketa deitzen dioten hori. Horren bidez, nonbait, pilota partidu bat 48 ordu atzeratzea eska omen daiteke. Halaxe argitu zioten Hitzari atzokoan. Horrela, EPEL-ko Epaila Bakarraren erabakiaren zain zeuden.

Aldeko erantzunarekin, partidua etzi Beotibarren jokatzeo aukera legoke.

LEITZA ▶ KULTURA

## 'Liburu bat egiten' erakusketa ikusgai

Pamiela argitaletxeak prestatutakoa da; astelehenean udaletxeko batzar aretoan

J. ASTIBIA

*Liburu bat egiten* izena darman erakusketa irekiko dute datorren astelehenean bertan, eta ostirala arte egon da zabalik, udaletxeko batzar aretoan.

Leitzaldeko Euskara Zerbitzuaren eskutik etorritako Pamiela argitaletxearen lan honetan, pausoz pauso ikusi ahal izanen du bertaritzen denak, erakusketaren izenburuak berak dioen moduan, liburu bat egiteko egin behar diren lanak zein diren: hormirudi batzuen bidez liburu gintzako urrats guztien berri ematen dute, hasi idazlea idazten hasten denetik eta azkenean liburua irakurle-arenganaino ailatzen den arte. Horretarako, testu errazak erabiltzeaz gain, irudiz, argazkiz eta baita fotolito, inpresio-plan-



Erakusketa prestatzen atzo. J. A.

txa moduko hainbat baliabideren laginetaz ere baliatzen dira, prozesu guztia xehe-xehe agertzeko.

Hau guztia, astelehenean hasi eta ostirala arte dago ikusgai, udaletxeko batzar aretoan, 18:30etik 20:30era.

Apirilaren 24tik aurrera

egunero ibilbide bat DOAN BERRIarekin

Laguntzaileak:



Euskaldunok behar dugun

berria



**AGENDA ▶**

**ANTZERKIA**

**Tolosa.** Haurrentzako *Groau!!!* antzezlanaren eskainiko du Hika taldeak Leidor zineman 17:00etan.

**DEIALDIAK**

**Lizartza.** *Luberri* bertso saioa 22:30ean frontoian: Jesus Mari Irazu, Aitor Sarriegi, Jon Maia eta Jokin Sorozabal.

**Tolosa.** 11:00etan Santa Maria parrokian eukaristia Juan Pablo II.a Aita Santu hilberriaren alde.

**Tolosa.** Gure Txokoa elkarteak bere eguna ospatuko du, 75. urtemuga dela eta: 11:30ean meza Jesusen Zerbitzarrietan, elkarteko abesbatzarekin; ondoren aperitiboa elkartean eta 20:30ean afaria Fronton jatekian.

**Tolosa.** Udaberri jokoan barruan, toka txapelketako finala izango da Harizpe jubilatu elkartearen 11:00etan, ondoren sari banaketa eta *luncha*.

**Tolosa.** Tolosa Kup-en izenemate zabalik dago igande bitarte. 75 euro Kutxako kontu korrantean ingresatu eta datuak tolosakup@hotmail.com helbidera bidali behar dira.

**Tolosa.** Udalaren sari banaketa eta *luncha*.

**Tolosa.** Tolosa Kup-en izenemate zabalik dago igande bitarte. 75 euro Kutxako kontu korrantean ingresatu eta datuak tolosakup@hotmail.com helbidera bidali behar dira.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Luis Mari Nuñezen koadroak jubilatuen tabernan.

**Belauntza.** Iñaki Edrosoren Aljeriako argazkiak Kultur Etxean.

**Tolosa.** Mikel Azpillagaren koadroak Aranburu Jauregian.

**Tolosa.** Aitor Ruiz de Eginoren eskulturak Aranburu Jauregian.

**Tolosa.** Ana Jesus Ansorenaren zeramikak Saikin tabernan.

**Tolosa.** Kubako ikasleen koadroak Lanbroa tabernan.

**Tolosa.** Kubako margolari baten lanak Fronton kafetegian.

**Tolosa.** Jose Antonio Gorgojoren koadroak Sorron dendan.

**IKASTAROAK**

**Tolosa.** Ikastaroak Amaroako KZgunean, 17:00etatik 19:00etara: babestu birusetatik 18an;

# Piano doinuekin jolasean

**ALBIZTUR ▶** Xabier Lizaso pianojole oriotarraren bisita jaso zuten atzo Albizturko eskolako ikasleek; ordubetez aritu ziren piano doinuekin jolasean

NOELIA LATABURU

**P**ianoaren doinu gozoaren oihartzunak entzungai ziren atzo goizean Albizturko plazan. Doinu horiek herriko eskolako gela batean zuten jatorria, eta autorea Xabier Lizaso izan zen. Musika instrumentu hau izan zuten aitzaki ikasleek goizeko lehen orduetan jolasean eta irrifarren artean aritzeko.

09:00etarako Lizaso oriotarra ume guztien zain zegoen eskolako gela nagusian. Umeak banan-bana ailegatu ziren, euren aurpegietan lotsa nagusi zelarrik. Baina oriotar atseginarekin bizitasunak alde batera utzi zituen umeen urduritasunak eta hegan jarri zuen ume hauen irudimena.

Bere emanaldiak ordubete iraun zuen; pianoarekin joko ezberdinak prestatu zituen Lizasok. Lehenik eta behin, bi taldeetan banatu zituen adin guztietako gaztetxoak eta jokoan nondik norakoak azaldu zizkien denei. Helburua saio guztietan ere, berak pianoarekin sortzen zituen melodien harira, umeek euren imajinarioa martxan jartzea izan zen. Eta



Xabier Lizasok pianoaren laguntza paregabea izan zuen haurtokoekin jolasak antolatzerakoan. NOELIA LATABURU

emaitza ona izan zen, bikaina benetan. Denek aho bete hortz entzutzen zituzten Lizasoren eskuek tekletan lortzen zuten melodiak. Lehen tandan, erantzun gutxi jaso zuen Xabier Lizasoren musikak. Denborak aurrera joan ahala, ordea, ikas-

leen iradokizunek, hain ziren dibertigarriak, non irakasleen eta Lizasoren beraren algarak eragin zituzten. Ez zen galtzailerik izan amaieran. Izan ere, denek izan zuten zer irabazi atzokoan: ume atsegina igarotzea ikaskideekin batera, musika


karekiko zaletasuna pizteko aukeraz.

Xabier Lizaso ere «pozik» azaldu zen esperientziarekin eta «askotan» aritzen dela «jolasean» herriko eskoletan zehar. «Nire saioan umeak dira protagonistak», azaldu zuen.

**AGURRAK ▶** Urtebetetzea, agurrak... argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



**URTE ASKOAN**  
Maialen Jauregi Fernandez (Berrobi). Gaur 8 urte. Zorionak senideen partetik.



**ZORIONAK**  
Ramon eta Saioa. Gaur ezkontzen dira. Egun ona pasa. Ande o no ande, Ramon es grande!



**URTE ASKOAN**  
Saioa eta Ramon. Kupela, kupela, ttantto gorri gu gera, kupela, kupela, zain dezagun horrela. Zorionak bikote!

negozioaren segurtasuna 19an; segurtasun kopia 20an; ekipo informatikoak babestu 21ean; BBVAko operazioak 22an...  
**Tolosa.** KZguneak Internet ikastaroak antolatu ditu 18tik 29ra, bi ordutegitan: 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

**MUSIKA**

**Lizartza.** Gasteizko Trangader eta Azpeitiko Nuke musika taldeak Gaztetxean 24:00etan.

**ZINEMA**

**Leizta.** *Whisky.* Bihar 19:30ean zineman.  
**Tolosa.** *Millon dolar baby.* Leidor zineman 19:30ean eta 22:30ean. Bihar 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean.